



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea 2008-06-17

VIURTEA 1.462.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

OINATZ BENGOETXEA BURUZ BURUZKO TXAPELDUNA

«Txapelak aurrera jarraitzeko indarra eta lasaitasuna emango dit»

LEITZA Aurreikuspen guztien aurka 22-11 irabazi zion Oinatz Bengoetxeak Abel Barriolari buruz buruko finalean

OSPAKIZUNA Goizean goizetik eta partidaren ondoren ospatu zuten herritarrek bi leitzarren arteko final handia 6-7



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



N.U.

IBAN GURRUTXAGA
GITARRA-JOTZAILEA

«Maitasunez eta konprometituta egin behar da musika»

AMEZKETA Jazz kontzertua eskainiko du udaletxeko ganbaran, bihar, 21:00etan 4

hitza elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

Harpidementuzat %25 merkeago

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA



Alaitu abesbatzak emanaldia eskaini zuen atzo. I. T.

Adinekoen Astea ari dira ospatzen lurreamendi egoitzan

Gizartea » Hilaren 22ra arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute egoiliarrek: hitzaldiak, jokoak, abesbatzak...

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, aurten ere Adinekoen Astea antolatuta dute lurreamendi egoitzan. Hain zuzen ere atzo ekin zieten ekitaldiei, eta hila-

ren 22ra arte luzatuko dira. Tartean era guztiak ekitaldiez gozatzeko aukera izango dute egoiliarrek: hitzaldiak, abesbatzak eta musika banden emanaldiak, lehiaketak, bazkariak, hamaiketakoak, txokolatada...

Txupinazoarekin hasiera

Mezaren ostean txupinazoarekin hasi zen atzo festa lurreamendin. Jokoan aritu ziren, bazkaldu eta Alaitu koroaz gozatu zuten.

» EGITARAUA

Ekainak 17, gaur

- 10:30. Meza.
- 11:00. Hitzaldia Ander Letamendiarekin.
- 17:00. Txokolatada egoiliar, familiako eta lagunentzat.

Ekainak 18, bihar

- 10:30. Meza.
- 11:00. Tonbola.
- 16:30. lurreamendiko koroaren emanaldia kafetegian.
- 17:30. Tolosako Udala Musika Eskolako ikasleen emanaldia kafetegian.

Ekainak 19, etzi

- 10:00. Unitate psikogeriatrikako egoiliarrentzat meza.
- 11:00. Ertzaintzaren Musika Bandaren emanaldia kaperan.

- 16:30. Kafetegian jokuak sari banaketarekin.

Ekainak 20, ostirala

- 10:30. Meza.
- 11:00. Galdera lehiaketa eta ondoren sari banaketa.
- 16:00. Bingo berezia egingo dute kafetegian.

Ekainak 21, larunbata

- 11:00. Hamaiketako egingo dute egoiliar, familiako eta lagunentzat.
- 18:00. Meza. 90 urte bete dituzte egoiliarrei omenaldia egingo zaie.

Ekainak 22, igandea

- 13:00. Astea amaitzeko bazkari berezia.

Tolosako geltokian zenbait berrikuntza egiten hasi da Renfe

Tolosa » Bidaia-erakina beritzen, saneamendu-sarea beritzen eta markesinak birgaitzen ari dira.

ERREDAKZIOA

Renfek Tolosako aldiriko trenen geltokiko erreforma-lanei ekin die. Bidaia-erakina eta nasako markesinak erabat birgaituko dituzte. Lanak sei hilabeteko epean gauzatuko dituzte. Lan horien bidez, Tolosako geltokia Renferen Aldiriko zerbitzuak eskatutako gutxiengo kalitate-mailaz hornitu nahi da. Erreforma-lanak Tecsa Empresa Constructora enpresari esleitu zaizkio 1.013.051 eurogatik, lizitazio-prozedura baten ondoren.

Honako obra hauek egin nahi dituzte: Bidaia-erakina erabateko erreforma (teilatua, fatxada, beheko solairuaren barnealdea); markesinen birgaitzea; saneamendu-sarea berriztatzea eta komun publiko berriak jartzea; eta azkenik, nasen arteko azpiko pasabidean igogailuak jartzeko zuloak egokitzea.

Tolosako geltokia, Irun-Brinkola aldiriko linean sartzen dena, guneko geltokirik garrantzitsuenetakoa da eguneroko bidaia-irteerari dagokionez. Horrela, geltoki



Sei hilabete iraungo dute Tolosako Renferen geltokiko lanek. ESTI EZEIZA

horretan egunero (lanegunetan) egiten diren atzera aurreen batez bestekoa 3.274 bidaia/egunean da 2007ko azaroan lortutako azken datuen arabera.

Irun-Brinkola lineak (Tolosako geltokiarentzako ere berdina da) egun egiten duen eskaintza eguneko 80 aldiriko trenkoa da lanegunetan; hirigune handietara, bereziki, Donostiara eta Irunera, egunero joan-etorrian ibiltzeko aukera aparta. Horrela, Tolosako geltokiko bezeroek 9 hiri tren (CIVIS) erdi-zuzen dituzte goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko ordu-

puntetan jarrita. Zerbitzu horiei esker, eguneko gehien erabiltzen den ibilbidea, Tolosa-Donostiakoa izate n da. Eguneko mugikortasun handienean 18 minututan eta tar- teko geldialdirik gabe gauzatzen da.

Beste tren-motei dagokionez, aipatutako aldiriko trenez gain, Tolosako geltokian egunero beste hamasei tren (ibilbide luzeko 10 eta ibilbide ertaineko 6) geratzen dira tolosarrak Gasteiz, Iruñea, Zaragoza, Bartzelona, Burgos, Valladolid eta Madrilekin komunika- tzen dituztenak.

Laburrak

Udal Musika Eskolan matrikulatzeko aukera

MUSIKA » Eduardo Mocoera Tolosako Udal Musika Eskolako arduradunek jakitera eman dutenez, datorren ikasturteko, hau da, 2008-2009 ikasturteko matrikula egiteko aukera zabalik dago dagoeneko. Bertan izena emateko asmoa dutenek hilaren 30era arte izango dute horretarako aukera. Idazkaritzako ordutegian egin ahalko da, hain zuzen ere, asteleheneetik ostiralera, 09:30etik 13:30era.

Euskara ikastaroa uztailen, etorkinentzat

GIZARTEA » Ereite Elkarte Multikulturalak antolatuta, euskara ikastaroa emango dute Aitzol euskaltegian. Boga Internet bidez euskara ikasteko multimedia programa erabiliko dute, eta helburua gazte atzerritarren euskara maila mantentzea eta indartzea izango da. Hilabete bateko iraupena du, eta doan da. Izena emateko edota edozein argibideetarako, 678 63 83 94 (Rita Calderon) telefono zenbakira deitu ahalko da.

'Tolosaldeko Baliabideen Gida' eskuratzeko aukera

GIZARTEA » Tolosaldea Garatzenek eta Galtzaundik Tolosaldeko Baliabideen Gida kaleratu berri dute, eskualdera bizitzera etortzen direnei zuzendua. Sei hizkuntza desberdinetan eskura daiteke Tolosaldea Garatzenen bulegoan edota eskualdeko udalteeetan. Informazio baliagarria topa daiteke bertan, eskualdeari buruz, erroldatzeari buruz, enpleguari buruz, gizarte zerbitzuei buruz, eta beste hainbat arlo garrantzitsuei buruz.

Hilberria



JOSE LUIS AZANZA TELLETXIKI

Nahiz eta agur esan behar beti gure artean egongo zara. Inoiz ez dugu ahaztuko zuk emandakoa.



BEASAIN
2008ko
ekainaren 17a

LAB-CAF sail sindikala

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Ekaitz Kortajarena ahalegin betearen larunbateko txapelketan. NEREA URBIZU

Jon Tecedor omendu dute pultsulariek txapelketan

Zizurkil » Gipuzkoako taldeak bigarren postua lortu zuen Euskadiko Federazioen Arteko Txapelketan.

IMANOL GARCIA

Izugarrizko kolpea jaso zuten Danena-Olaederrakoek larunbatean. Taldeko partaidea zen Jon Tecedor lasartearra errepidean hil zen istripu batean. Tecedorrek arratsaldean parte hartu behar zuen Zizurkil Euskadiko Federazioen Arteko Txapelketan. Lehia bertan behera uztekoan izan ziren, baina Tecedorren familiakoek txapelketa egin zedin eskatu zuten. Batis Kortajarena Danena-Olaederrako arduradunak azaldu

duenez, «txapelketa omenaldi bihurtu zen».

Federazio bakoitzetik bost pultsularik parte hartzen zuten. Jon Tecedorren ordez ez zuten beste pultsularirik sartu eta, beraz, Gipuzkoatik lau aritu ziren. Horieta hiru izan ziren Danena-Olaederrakoak: Teddy Martinez, Ekaitz Kortajarena eta Gorka Lopez. Azken hau Andoni Kortajarenaren ordez aritu zen, ostiralean lesionatu baitzen. Hauekin Zarauzko taldeko Borja Bravok parte hartu zuen.

Pultsulari bat gutxiagoki aritua ere bigarren postua lortu zuten gipuzkoarrek. «Oso ondo aritu ziren», azaldu du Kortajarenak. «Teddy eta Ekaitzek urteko markak lortu zituzten. Oso motibatuta atera ziren denak eta altxaldi ba-

koitza Jon Tecedorri eskaintzen zioten». Gipuzkoakoek ez ezik, beste taldekoek ere omenaldia eskainizioten. «Jon oso ezaguna zen. Madrilen txapelketa honetan parte hartzen zuen beste pultsulari batzuekin izan zen».

Martinez eta Kortajarena lehen postuetan

Nafarroak irabazi zuen txapelketa 1.300 puntu lortuz. Gipuzkoa bigarren izan zen 1.140 punturekin. Bizkaia hirugarren 1.020 punturekin eta laugarrena Araba izan zen 950 puntu lortuz.

Banakako sailkapenari begiratu, Teddy Martinezek eta Ekaitz Kortajarenak lortu zituzten lehen bi postuak. Hirugarren postuan Nafarroako federazioarekin parte hartu zuen bulgariarra izan zen.

Zelaraini 13 urtera igo diote zigor eskaria

Villabona » Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketan fiskalak hiru urte gehiago eskatu ditu billabonatarrentzat.

ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketan, fiskalak Julen Zelaraini billabonatarren aurkako espetxe zigorra 10 urtetik 13 urtera igo du. Carlos Bautista fiskalak Zelarain bera, Joan Mari Olano eta Aitor Jugo

«ETAko buruzagitzat» jo ditu eta hiru auzipetuei hiru urte igo dizkie eskaerak. Beste 18 auzipeturen kontra 10 urteko eskaerei eutsi die, AAMko kide ziren heinean etakide zirela iritzita. Beste hiru urte kontrako karguak atzera bota ditu.

Fiskalaren arabera, «auzipetuek epaiketan izan duten jarrerak» ardigago utzi du «erakunde terroristako kide» direla. Epaiketa salatze-ko, manifestazioa deitu dute Iruinean heldu den larunbaterako. 18:00etan hasiko da, autobus geltokitik.

Laburrak

Loari buruzko hitzaldia, bihar, Alkartasunan

ANOETA » Aulas Kutxak antolatuta, bihar hitzaldia izango dute Alkartasuna biltokian. Ainara Lopetegik emango du eta *Ongi lo egiten ahalagindu hobeto bizitzeko* da izenburua. 18:30etik aurrera izango da hitzaldia.

Hernaniko Aquaparkera irteera Kaxkagorrek

AIZONDO » Kaxkagor elkarteak Hernaniko Aquaparkera egun pasa antolatu du Aiztondoko 12 eta 16 urte arteko gazteentzat hila- ren 21ean. Izena ematea derrigorrezkoa da eta kaxkagor@hotmail.com helbidean edo 677 48 8910 edo 636 63 86 35 zenbakietan egin daiteke.

Festa batzordea biltzen ari da prestaketak egiteko

ZIZURKIL » Festa batzordea astearte eta ostegunetan biltzen ari dira Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Herritar guztiei luzatzen diete deialdia. Bertara gerturatu ezin duenak psta elektronikoz helarazi ditzake proposamenak, zizurkilgo_festa_batzordea@hotmail.com helbidera. Festetan, besteak beste, kantu kalea eta haurren dantza emanaldia antolatu dituzte. Bestalde, festa giroan sartzeko, hilaren 28an Koadrilen Eguna antolatu da. Pasa plaza bazkaria egongo da eta norberak berea eraman beharko du.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean, merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 9194 82.

Loatzoko ikasleen kontzertua, bihar

ZIZURKIL » Loatzo musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua emango dute ikasleek. Zizurkilgo San Millan elizan izango da emanaldia, bihar, 19:00etan.

Kaxkardirekin piraguismoa egiteko aukera Txaraman

ZIZURKIL » Kaxkardi elkarteak, 8-12 urte bitarteko haurrentzat (udal- txeeek eskaintzen duten uda kanpaina barruan) eta zuzenean helduentzat ere, piraguismo hastapenerako ikastaroak eskaintzen ditu, urtero bezala, Txaraman Araxen ibaian. Ikastaroen prezioak 45 eurokoak dira, baina Anoeta, Alegia, Lazkao, Zaldibi, Ordizia, Zizurkil, Aiztondo, Villabona, Tolosa eta inguruko udal askok, uda kanpaina barruan gazteentzat diru laguntzak ematen dituzte. Informazio gehiago behar izanez gero, interesadunak harremanetan jar daitezke kaxkardi@hotmail.com helbidean edo 677 48 8910 zenbakian.

Gazteen erreferentea

I. GARCIA

Jon Tecedor Lasarten jaio zen eta 32 urte zituen errepidean heriotzarekin topo egin zuenean. «Gaztetik hasi zen nabarmen», dio Batis Kortajarenak. «15 urterekin 16 urtez azpiko Espainiako Txapelketa irabazi zuen». Lasarteko Indarra taldean aritzen zen garai horretan. Kortajarena Donostian zebilen prestatzaile bezala eta Zizurkilera joan zenean, urte bidez halterofiliatik deskonektatuta egon zen. Tecedorren prestatzaileak ezin izan zuten jarraitu berarekin eta Kortajarenari galdetu zion ea posible zen bere entrenatzaile izatea. Baiezkoa esan zion. «18 urterekin sekulako igoera egin zuen. Espainiako Txapelketak eta torneok irabazten hasi zen», gogoratu du Kortajarenak.

19 urterekin Madrilera joateko

aukera eman zioten, errendimendu handiko zentrora. «Nik pentsatzen dut berak ez zuela gogo handirik Madrilera joateko. Bere amak, baina, bere semea ikusi nahi zuen Olinpiar Jokoetan». 2000. urtean lortu zuen Olinpiar Jokoe- tarra joatea. Sydneyn lehiatu zen Tecedor. «Handik bueltatu zenean, Madril utzi zuen eta hemen jarraitu nahi zuela esan zuen, baina beste filosofia batekin. Bere taldeari lagundu nahi zion, gure taldeari, eta nik ezin nion gehiago exijitu», azaltzen du Kortajarenak. «Bere bizitzako sei urteak eman zituen Madrilen eta bere familiarekin eta lagunekin egon nahi zuen. Gure taldean sartu zen 18 urterekin eta orain arte gure taldean egon da. Taldeko erreferentea zen. Gazteak hasten zirenean aurrean ikusten zuten irudia Jonena zen».

Emaitzaren aldetik, munduko txapelketan seigarren postua lortu zuen eta Olinpiar Jokoetan ia finaleraino irabazi zuen. «Sydneyko urterik zailena izan zen, marka izugarriak egin ziren. Jon lehiari egon zen munduko onenekin», gogoratzen du Kortajarenak. «Orain beragabe zulo handia sentituko dugu taldean. Ez dago beste heldu batzuek ispilu bezala erabili dezaketen».

Aurretik ere Tecedor Zizurkil-ekin lotuta bazegoen, orain gehiago egongo da. «Familiak galdetu zidan ea posible zen bere errautsei Zizurkil lur ematea», azaltzen du Kortajarenak. «Berak hala nahi izango zuela eta familiak ere hala nahi zuela azaldu zuten». Tecedorren gorputza atzo goizean erarautu ondoren arratsaldean eraman zituzten errautsak Zizurkilgo hilerria.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak, 2008.eko maiatzaren 26an hartutako erabakien bidez, hasierako onespenea eman zion honako proiektu honi:

T.6 "San Frantzisko eraikin publikoak" eremuko Barne Erreformarako Plan Berezia.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGEBI LANEGUN, (iragarkia honen azken argitaratzea egin eta bihararaino kontatzen hasita) jendearean jarrita egongo da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 104 a, 97.1 eta 95.2 artikuluek xedatutako arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da.

Espediente, inork aztertu nahi du, Udaletxeko Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B) agerian egongo da, aipamenero epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2008ko ekainaren 3an.
ALKATEA.

E Elkarrizketa

IBAN GURRUTXAGA ▶ Gitarra-jotzailea

Amezketak » Bihar jazz kontzertua izango da udaletxeko ganbaran, herritar honen eskutik, herritarrei eskainia. Musikeneko jazz-gitarro ikasketak bukatuko ditu aurten.

NEREA URBIZU

Iban Gurrutxagak (Amezketak, 1975) bihar bere sorterrian jazz kontzertua eskainiko du beste lau musikarirekin batera. Gitarra jotzen du, eta askok Marruma taldean egon zenean ezagutuko dute. Trikitizion, Iker Goenagarekin, Groove box funk-en eta Trifidus Activo taldeetan jotzen du. Gauza ia guztien gainetik, gitarra jotzea du maite.

Zer eskainiko duzu bihar?

Diziplina ezberdinak ukituko ditut. Gitarra bakarrik entzun ahal izango da, baina formazioa aldatzen joango da emanaldia, hau da; bikoteak, hirukoteak, laukoteak eta bost musikariak batera ere ariko gara. Konbinazio diferenteak egingo ditugu. Bateria, baxua eta gitarra ia guztietan entzun ahal izango da, eta beste batzuetan pianoa eta saxofoia ere bai.

Zein musikarik joko dute zurekin batera?

Satxa Soriazu pianoan, Luis Verde saxofoia jotzen (Caceres, Espainia), Diego Hermando (Burgos, Espainia) bateri-jotzailea eta Ander Garcia baxuarekin izango ditut.

Estiloa, jazz-a izango da.

Bai, jazz-a jorratuko dugu. Estilo aldetik 1950. hamarkadako soinuak gogoratuko dituen kantauk joko ditugu, gaur egun arteko soinu-entzara iritsi arte. Kantaren batek jazz-funk kutsua izango du, eta nik konposatutako batek blues-a gogoratzen du.

Beraz, konposatu ere egiten duzu?

Bai eta oso gustuko dut. Maisu oso on bat izan dut, Guillermo Klein argentinarra eta bere klase batzuk jaso ditut. Askok pentsatu dezakete konposatzea dela inspirazio kontua edo, baina ez, gauzak guztiak bezala bere sekretuak dauzka, bere erremintak dauzka...



N.U.

«Musikariak maitasunez eta konprometituta egin behar du musika»

Kleinek abiapuntu desberdinak jartzen zizkigun eta hortik abiatuta, konposatu egiten da. Inoiz pentsatuko ez nuena ere ateratu izan da horrela. Musikak, hizkuntzak be-

zala, bere lengoia dauka. Baliabideak badaude eta gero talentoa izan daiteke horiek nola erabili berderatuko duena.

Nolatan ateratu da kontzertu hau?

Berez, karrera bukaerarako kontzertu bat egin behar dut. Donostian eta hori joko dut. Herriko jendeak izango du aukera (eta nik neuk ere bai), nik egiten dudana

» KONTZERTUARI BURUZ

- **Eguna.** Ekainak 18, asteazkena.
- **Ordua.** 21:00etan.
- **Lekua.** Udaletxeko ganbaran.
- **Iraupena.** Ordubate inguru.
- **Musikariak.** Iban Gurrutxaga (gitarra), Diego Hermando (bateria), Ander Garcia (baxua), Satxa Soriazu (pianoa) eta Luis Verde (saxofoia).
- **Estiloa.** Jazz-a.

ikusteko eta entzuteko. Herritarrek ikusiko dute herriko tipo batek (nik) gutxi, gorabehera zer egiten duen bere bizitzako momentu zehatz batean. Era xumean hori erakusten saiatuko naiz herritarrei. Kultura batzordekoei proposatu nien eta haiak baiezkoko berehala erantzun zidaten.

Etxean jotzeko gogoz?

Bai, gustura. Jo izan dut, eta harre-oso ona egin didate beti. Marrumarekin eta bestela ere jo izan dut eta beti oso gustura. Erromeria, rock-a, jo izan dut.

Zer entzungo du hara doan?

Musikari batek kontzertua eman behar duenean egin beharra du ahal den eta maitasun handienarekin. Jendeak zer pentsatuko duen edo zer sortuaraziko dion ez du pentsatu behar musikariak, gehienbat jazz-eko kontzertu batean. Hori ez da kezka izan behar: zuk nahi duzu jendea iristen zuzun duzuna gustatzea. Baina benetan arduratu behar zaituena da egiten duzuna konprometituta eta maitasunarekin egitea. Azkenean hori jendea iristen zaio, nahiz eta berriak musika hau ez dutela ulertzen esan.

Musikeren orain bukatuko dituzue gitarrak jazz ikasketak.

Bai. Esperientzia bat da eta karrera oso ondo dago. Orain arte ez da aukerarik egon estilo hau akademi mailan ikasteko, klasikoekin izan bezala.

Nola ikusten duzu jazz-a Tolosaldean?

Nire iritzia da eta ez noa orain egia-rik botatzera, baina musika orokorrean ez da momentu onena pasatzen ari. Jendeak ez du kulturaren parte hartzen: egoera ez da ona. Proiektuak prestatu eta ez dakizu nora jo, nola eskatu, zer zaren adierazi... Kontzertu bat montatzea gaur egun zailagoa da lehen baino.

txokoa

2 zerbitzu oso

zozketan

kolorea, diztira, forma, mozketa, orrazkera eta ilerako tratamendurako produktua.

honekin



ESTILISTAK
honekin



www.honekin.com
honekin@honekin.com
943 67 22 44
Santa Maria plaza 1 • TOLOSA



Hainbat herritarrek Udalaren jarrera salatu zuten eta jaietan «aldarrikapen ekitaldiak» egingo dituzte. HITZA

Jaietan Udalari «planto» egiteko deialdia egin dute

Ibarra » Hainbat herritarrek Udalaren egitarautik aparte jai ekitaldiak antolatuko dituzte 'Bartolo'-etan.

ASIERIMAZ

Hainbat ibartarrek prentsaurrekoa eskaini zuten iragan larumbatean *Ibartarron Jaiak, ibartarron nahiak...* eta *ibartarron erabakiak?* goiburupean. Herriko plazan 60 lagun inguru bildu ziren, *Udal baztertzailea ez! Herritarren erabakiak errespetatu!* ipintzen zuen pankartaren atzetan.

Udalak «erabat baztertuak»

Prentsaurrean bildu ziren ibartarrek udal ordezkarien jarrera salatu zuten lehenik: «alkate eta zinegotzi legalek, ibartarrak baztertzeko gaituzte erabakiak hartzerakoan. Arrazoi ezberdinengatik eta

arilo edo gai ezberdinetan, ibartar asko gara udalaren erabakiekin eta hartzeko moduekin erabat baztertuak».

«Adibideak pilatzen»

Adibideak aipatzerako unean, larumbatean bildutako herritarrek hiru multzotan sailkatu zituzten. «Bazterketaren» lehen adibide bezala Udal osaketa aipatu zuten; «710 ibartarren ordezkaritzaren bazterketa eman zen, modu formalean karguak hartzerakoan, baita gero, parte-hartze eta erabakitze aukerak bilatzerakoan».

Bigarren adibide bezala udalaren gestioa aipatu zuten: «Urtebete honetako gestioa baztertzailea izan da. Inoren iritzirik kontuan izan gabe eta inoren aurrean konturik eman beharrik gabe hartzen dituzte erabakiak. Diogunaren adibide dira Udal langileekin izandako gatazka eta agertutako jarre- ra, Txontxo eta ondoko etxe ba-

bestuak botatzeko erabakia eta modua»...

Hirugarren adibide bezala Haur Eskolaren inguruko afera aipatu zuten: «Haur Eskolaz hartutako erabakia, eta erabakiak sorturiko kezken aurrean izaten ari diren jarrera. Inplikatuak ugari izanik, denen iritzia gaitetik erabakiak hartzeko eta arrazoitzeko modu baztertzailea».

Jaietan «planto bat»

Azkenik herriko jaien inguruan euren hartutako erabakia plazaratu zuten: «Ibarra ibartarrok egiten dugun egun, eta jaiak ere herritarrok egiten ditugunez, jaietan udalari herritarrik gabe ez jairik, ez egunerokotasunik ezin dela eduki erakutsi geniezaioke. Nahi badugu, badugu indarra, jai giroan planto bat egiteko. Honaino esateko! Bide horretan aurrera, hainbat jai ekitaldi antolatzeko gonbitea egiten diegu ibartarrei».



'Naparra' gogoan 150 lagun inguru

LIZARTZA » Igarola baserrian *Naparra* gogoratu zuten herenegun 150 bat lagunek. Bere omenezko monolitoaren aurrean, 28 urte desagerturik daraman Jose Miguel Etxeberria Alvarez non duten galdetu zuten. Txalapartari, dantzari, bertsolari eta dultzaineroek Napararren oroimena bizirik dagoela erakutsi zuten. ASIERIMAZ

Laburrak

Zabalik eskolako ikasleen erakusketa

BERROBI » Eskolako ikasleek erakusketa bat antolatu dute arteari buruz. Aste honetan zehar zabalik egongo da joan nahi duen gutziarentzat 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 18:30etara. 2. urteko haurretatik 12 urte bitarteko ikasleen lanak daude ikusgai.

Festa Batzordearen bilkura bihar 20:00etan

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketaekin jarraitu asmoz, bihar 20:00etan Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko animatu eta gonbidatu ditu herritarrik. Bilkura Udal Pleno Aretoran egingo da.

Gutunak

Puntu eta amaierako legea

Joan den asteazkenean hogeita zortzi urte bete ziren 1980ko ekainaren 11 hartatik: Batallón Vasco Español taldeak bere gain hartutako ekintzan, Jose Miguel Etxeberria Alvarez, *Naparra*, Komando Autonomo Antikapitalistakako militantea bahitu eta desagerrarazi zuten.

28 urte luze eta gogorrotan, bere sende eta gertukoek borrokan ari turu gara kasu hau, bat gehiago gerra zikinek beste hainbaten artean, ikertu, argitu eta epai zezaten. Bide gogor honetan ez ditugu bidaide

errosoak eduki: jazo zena jakiteko inolako asmorik erakutsi ez duen espainiar justizia eta erakunde ofizialen eta alderdi politikoen, hain etiko eta demokrata diren horien guztien, utzikeria. Baina alboan izan ditugun pertsona guztien babilak eta sostengua ere jaso dugu.

«Jakin beharreko nagusia jakina da dagoeneko; gainontzekoa ez dut uste ona denik jakitea». Horrelaxe irakur daiteke *El País* egunkariko joan den maiatzaren 18ko edizioan, trantsizio garaian Espainiako zerbitzu sekretuen buru izandako Andres Cassinelloren ahotik irtenak. Garzon epaileari buruz ere mintzo da GALen aferra-

ren inguruan: «Ez dut hitz egin nahi gai honi buruz. Ez nion Garzon esan, itsusi litzateke orain hitz egitea». Eta Espainiako Auzitegi-ko epaile ospetsua, kontseilari autonomikoren bat ere bai, argentinarr eta txiletar lurretan dabil, askatasunen paladin eta justiziaren berrezarle biltz bezala.

Igandean, urteroko legez, Lizartza Igarola Bekoan *Naparra* gogoratzeko bildu ginen. Haren gorputza itzul diezaguten eskatzeko. Justizia egin eta egia osoa jakin dadin exijitzeko.

Non duzue? Itzuli!
Eneko Etxeberria Alvarez.
'Naparra' ren anaia.

CAMBRIDGE PROFICIENCY IN ENGLISH CPE



IRAKASLEA:
JEREMY BARNES
(LINGUISTA)



IKASTARO TRINKOA UZTAILEAN GOIZETAN Matrikula IREKITA DAGO!

DONOSTIA: Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta – Tel/Fax: 943 31 07 53 – 943 31 37 90 – **INTXAURRONGO:** Pedro Axular 4, Behea – Tel/Fax: 943 27 24 63 – **TOLOSA:** Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 – 943 67 12 75 /Kondeaneko Aldapa, 30 – Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo. Tel/Fax: 943 37 00 52 – 943 67 12 75 – **LASARTE:** Pablo Mutiozabal 2, 1. solairua – Tel/Fax: 943 37 27 81 – **URNIETA:** Dendaldeg, 6 Behea – Tel/Fax: 943 55 58 58 – **VILLABONA:** Kale Berria 46, 2-B – Tel/Fax: 943 69 63 73 – **ALEGIA:** San Juan 46 – Tel/Fax: 943 65 57 26

E Elkarrizketa

OINATZ BENGOTXEA » Buruz buruko txapeladuna



A. OTERMIN

«Aurrera jarraitzeko indarra eta lasaitasuna emango dit txapelak»

Leitza » Aurreikuspen guztien aurka 22-11 irabazi zuen herenegun Oinatz Bengoetxeak, bi leitzar pilotarien arteko final handian.

INIGO TERRADILLOS

23 urterekin buruz buruko Pilota Txapelketako irabazle izatea lortu du Oinatz Bengoetxeak (Leitza, 1984). 22-11 emaitzarekin irabazi zion herenegun Abel Barriola, herriar, lagun eta kideari Donostia-ko Atano pilotalekuan. Garaipenaren ostean, izugarriko pozarekin, eta aldi berean, biharamun galantarekin jaiki da gaur leitzarra.

Zer moduz sentitzen zara hain partida garrantzitsua irabazi ostean. Zer moduzkoan izan da biharamuna?

Oso pozik nago, ilusio ikaragarria

egin zidan garaipenak, eta gaurko [atzoko] eguna ere oso polita ari da izaten.

Leitza partida ondoan iriztea ere ikaragarria izango zen.

Bai. Leitzarrek egindako harrera oso polita izan zen. Han zegoen jende guztia esperoan. Guretzat auto berezi bat prestatu zuten, eta bertan igota herri osoa zeharkatu genuen, oso polita izan zen.

Leitza harrera egin zizueten herriarrek, eta ondoren, behar bezala ospatzeko txanda iritsiko zen.

Bai, parranda ere ahal zen guztia

egin dugu, eta goizaldera arte egon gara lagunekin, sendikoekin, herriarrek...

Biharamuna, beraz, atsedenera-ko izango zen.

Goiza nahiko lasai eman dut. Hainbat komunikabiderekin egon naiz, eta arratsaldea, berriz, partida ikusteko ere baliatu dut.

Zer moduzko partida izan zen? Nola ikusi zenuen zeure burua?

Nire ustez, nik egin beharrekoa ongi egin nuen. Sotamanoz-eta asko aritu nintzen, beraz, behartu egin nuen Abel, eta ia dena atera zitzaidalda esan beharra dago. Eta zortea ere alde izan nuen, beraz, ezin gehiago eskatu.

Konfidantzarekin ikusi zitzaizun partidari, arriskatu.

Ni oso lasai atera nintzen pilotalekura, konfidantzatz bete, eta esan

bezala ia dena ongi atera zitzaidan. Dena den, tanto gogor ugari izan ziren, eta horiek ondo amaitzea oso garrantzitsua izaten da. Nire ustez tanto horiek ia erabakiorrak izaten dira konfidantza gehiago ematen dizuetelako, eta igandeko

Agian ez zuen besteetan bezain partida ona egin, baina ez dut uste oso txarra egin zuenik Abelek

kasuan horiek ongi amaitzea lortu nuen.

Abel Barriola zen faborito nagusia partidaren aurreko apustuek argi erakusten zuten bezala. Agian horrek zertxobait lasaitu zintuen, eta Barriolak, berriz pre-

sio handiagoa sentitzen zuen bere gain.

Faborito izateak zama hori du, eta agian horregatik normalean baino urduriago jokatu zuen. Nik, berriz, esan bezala, eta agian zama hori ez nuelako sentitzen oso lasai atera nintzen pilotan jokatzera.

Zer moduz ikusi zenuen Abel Barriola partidari zehar?

Ez dut uste partida oso txarra egin zuenik. Agian, ez zuen besteetan bezain ona egin. Baina, pilotan batek ia dena asmatzen badu ho-

Zale guztiei eskaini nahi diet txapela, bereziki partida guztietara babesa ematera joaten direnei

rrek besteari eragiten dio eta larri ibiltzen da; kasu honetan, niri ia dena atera zitzaidan, eta ondorioz, Abeli eragin zion horrek.

Partidaren zein unetan sentitu zenuen Buruz Buruko txapela zure buru gainean zegoela?

Partida ongi zihola ari nintzen ikusten, gustura ari nintzen jokatzera. Baina ikasi dut pilotan ezin zarelada fidatu azken unera arte, gauzak bat batean aldatu baitaitezke. Beraz, azken arte guztia eman nuen, eta ez nintzen lasaitu azken tantoa egin arte.

Nori eskaini dioza txapela?

Zale guztiei eskaini nahi diet. Batez ere, nire partida guztietan euren babesa ematen egoten diren guztiei.

Zer emango dizu txapel honek?

Buruz buruko Pilota Txapelketa da dagoen etan garrantzitsuenak, beraz, txapel hau janztea oso handia da niretzat. Pilotan aurrera jarraitzeko indarra ematen dit, eta aldi berean lasaitasuna. Hemendik aurrera lasai ibiltzeko bidea egin dit.

Eta orain merezitako opor egun batzuk hartuko dituzu.

Bai, lau bat egun igaroko ditut Lekeition atsedean hartzen; oso ongi etorriko dira egun horiek. Eta gero berriro ere ekitera.

Buruz burukoaren ostean zein txapelketa duzu orain?

Nafarroako lau t'erdiko Txapelketako partida jokatu du hurrengo astean, eta aurkari bezala Arretxe izango dut.

@ Zurea da hitza. Zure inguruko albisteak sartzeko aukera ematen gure webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Ke-xak, gomendioak, eskerrak... sartu ditzakezu, eta argazkiak sartzeko aukera ere ematen dizu, eta orain arte sartu dituztenak ere ikusi eta iritziak ere sar ditzakezu. Gainera, gure webguneaz gain, egunkarian bertan argitaratuko ditugu atal honetan sartzen diren berriak. Izena eta abizena jartzea gomendatzen dugu:

www.tolosaldeko-hitza.info

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

ziurtagiarenekin
1.500 iritziarekin batera

1.500 iritziarekin batera

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Meza ondoren 2 pilota partida jokatu zituzten plazan, herritarrek adi-adi zeudela, baita mutiko gazteak ere, hain ezaguna egin den kamisetarekin. N. GARZIA



Aitziber Sagastibeltza eta Sandra Buldain, kamisetarekin. N. G.



Incansables txarangak herriko kaleak alaitu zituen. N. GARZIA



Herritarrek kalejirekin gozatu zuten. N. GARZIA



5 autobusetan joan ziren leitzarrek Atano III.era. N. GARZIA



Pilotazaleak pozik, autobusera igotzen. N. G.



Taberna guztiak jendez bete ziren, ez zen inorrentzat lekurik. N. G.

Denen gogoan geldituko den eguna

Leitza » Goizetik hasita ospatu zuten leitzarrek finala, eta txapela herrian zela jakinda partida baino lehen eta ondoren gozatu zuten.

NAIARA GARZIA

Igandea leitzarrek ez dute erraz ahaztuko. Bengoetxea eta Barriolaren arteko partida 18:00ak aldera hasi zen arren, herritarrek egun osoan zehar ospatu zuten final handia.

09:00etan txistulariak izan zi-

ren egunari ongiatorria ematen lehenak, eta meza ondoren jarraitu zuten ekitaldiek. Eguraldiak lagundu zuenez, plazan aurreikusita zegoen bezala, 2 pilota partidak jokatu zituzten: lehenengo neskak palaz aritu ziren, Saioa Iraola eta Iera Agirre kanpoko 2 pilotariaren

aurka eta ondoren Aurrera Pilota Eskolako 4 pilotari elkarren aurka aritu ziren. Jendeak gustura jarraitu zituen partidak, arratsaldekoa eguneko partida izan arren, Leitza herri pilotazalea dela argi utziz.

Pilota partidak amaitu eta gero Incansables txarangak herriko baztarrak alaitu zituen eta bazkaldura arte herri-poteoa egin zuten. Leitzarrek, ordea, bazkaltzeko denbora gehiegi ez zuten izan, 16:00ak baino lehen autobusean Atano III.era joatekoak zirenak

Elbarren kalean prest baitzeuden. Orotara 5 autobus joan ziren Donostiara, ilusioz eta pozez beteak. Herrian, berriz, jende ugari gelditu zen eta bertako tabernak erabat bete ziren. Zenbaitek partida ikustera etxera joatea erabaki zuten, tabernetan lekurik ez zegoela ikusita.

Telebistatik bota zuten lehenengo partidari ez zioten gehiegi erreparatu tabernetan bildu ziren zaleek, finala noiz hasi zain baitzeuden, eta hau 18:00ak pasata

hasi zen. Finalak arraroak izan ohi dira, eta hasi bezain laister amaitu zen Bengoetxeak irabazi zuen norgehiagoka.

Ongietorri bizia

Sagasti tabernaren aurrean ehunka zale bildu ziren, 2 pilotariei ongiatorria egiteko eta handik kotxe zahar batean plazara igo ziren jendea atzetik zutela. Bertan ongiatorria egin zieten karrapean, euria ari baitzuen eta ondoren kiroldegian herri afaria egin zuten.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Ibarra Udalak 2008ko San Bartolome jaietako egitarau-rako bozeto lehiaketarako lanek ekainaren 20a baino lehen Benito Izagirre kultur etxean entregatu behar dira. Gaia librea izango da. Ibarra bizi edo eta ikasten duten haur guztiek aurkeztu ahal izango dute.

■ **Tolosa.** Uztailaren 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daitezke Harizpe eta Iturriza jubilatutako elkarteetan. 65 urte izan eta Tolosa bizi diren izen-tzat da.

■ **Tolosa.** Hilaren 28an, 16:30etik aurrera Bizikleta festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilo-metroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, egunean bertan, kmk.ikuskitzunak@ikastola.net edo 688 658004 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreraga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Zilarrezko Odol Tantak banatu dituzte

ALEGIA ■ Alegiak ere Zilarrezko Odol Tanta jaso du Gipuzkoako Odol emaleen Elkartearen eskutik. Sari hau, urtean 1.000 biztanlego 50 emanaldi baino gehiago egiten duten udalerriei eman zaie. Aurten 33 udalerrik gainditu dute emanaldi kopuru hori. Sariak, Batzar Nagusietako erai-

kinean banatu zituzten apirilaren 28an. Oraingo, Asteasu, Berastegi, Anoeta, Villabona, Irura eta Alegia dira kopuru hauetara iritsi direnak. Datuen arabera, Gipuzkoan batez beste, 49 emanaldi egiten dituzte 1.000 biztanleko. PATXI RENOBALES

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

tolosaldeko-hitza.

iragarkilaburrak.com

zure-iragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

iragarki**laburrak**.com
euskal herriko iragarki laburren aldea